

FRAILEARRIA

Ondarribiko Itxasoko Lapurren Gaztelua esaten deutesen inguruko bazter batean badago arri bat "Frailearria" esaten deutesena.

Iñori be ezteutset entzun arri onen kontu zarrrik baia nik badakit istori bat, eta auxe da:

Antxiña-antxiña batean, batek badaki zenbat urte izango diran ordutik onañ, jazo ei-zan jazoera au.

Itxas-ertzeroa joan ei-zan fraide gazte bat, udagoieneko arratsalde eder batean, eta errezuetako liburuakin egoala, itxasoko andra bat agertu ei-jakon kantetan.

Begiratu egin ei-eutsan fraideak, baiña pekaturako bidea zalako, andik alde egin ei-eban ainbatik ariñen.

Baiña ain kanta ederrak kantetan ei-ebazan arek itxasoko andra-kantari eder arek ze atzerantza begiratzeko gogo aundiak etortzen ei-iakozan.

"Ez egixu begiratu atzeruntz, ostien damutuko iatzu-ta", entzun ei-eban goitik etorren argi batetik.

Baiña entzuten ebazan kantak entzunda, begiratu egin ei-eutsan bigarren aldiz olatuen artean kantetan ebillenari.

Pekaturako tentaziño aundia zalako, barriri be andik alde egiteko ainbatik ariñenean pausuak bizkortzen asi ei-zan, eta orduan itxasoko kantorea len baiño bigunago eta edertoago asi ei-zan kantetan, fraide gazteari irugarren aldiz begiratu-eginerazotearren.

Begiratzen asi ei-zan, eta orduan be goitik etorren argitik auxe entzun ei-eban:

"Ez egixu atzeruntze begiratu, ostien benetan damutuko iatzu orainguen-da."

Baiña jaramonik egin barik, irugarrenez be begiratu egin ei-eban atzeruntz, eta orduan aintxe una aretan bertan arri eginda gelditu ei-zan, baiña ez betiko, Jaungoikoak emon eutsan penitentzia bete artean baiño.

Eta Frailearriaren inguruetan urtean-urtean entzuten ei-dira kanta ederrak itxaso aldetik, eta penitentziako errekuak legorretik.